

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	PLANGINTZA ETA KONTROLA ZALDI-AZIENDAREN UGALKETA-PROZESUAREN GARAPENEAN	Iraupena	90
		Espezifikoa	
Kodea	UF0373		
Lanbide-arloa	NEKAZARITZA		
Lanbide-eremua	Abeltzaintza		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Zaldi-hazkuntza	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Jarduerak kontrolatzea eta antolatzea hazitarako arrekin, umetarako behorrekina eta errapeko moxalekin.	Iraupena	180
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Hazitarakoan, umetarako behorren eta errapeko moxalen maneia eta kokapena.	Iraupena	40
	Hazitarakoan, umetarako behorren eta errapeko moxalen elikadura eta zainketak.		50

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0533_3 JARDUERAK KONTROLATZEA ETA ANTOLATZEA HAZITARAKO ARREKIN, UMETARAKO BEHORREKIN ETA ERRAPEKO MOXALEKIN gaitasun-ataleko LB2, LB3, LB4, LB5 eta LB6 lanbide-burutzapenekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Ustiategiaren baliabideetara egokitutako estaltze-plan bat lantzea, horren aplikazio zuzena gainbegiratzuz eta dagokion erregistroak eginez ugalketa-prozesu osoan zehar.

EI1.1 Estaltze-plan bideragarri bat diseinatzea, aurreko urteetako emaitzen azterlanean, baliabide erabilgarrietan eta ustiategiaren helburu berrietan oinarrituta.

EI1.2 Estaltze naturaleko edo intseminazio artifizialeko tekniken aplikazioa hautatzea, estali beharreko behorren eta hazitarakoan kopuruaren eta ezaugarrien arabera, baita langile eta baliabide erabilgarrien arabera ere.

EI1.3 Estaltze-planaren betearazpena egiaztatzea, sor daitezkeen ezbeharrak konponduz, neurri eta zuzenketa egokien bitartez, ustiategiaren baliabideak eta helburuak kontuan hartuta.

EI1.4 Beharrezko informazioa biltzea eta artxibatzea gero aztertzeko, eta dagokion erregistroak behar bezala betetzea.

EI1.5 Estaltze-plana lantzeko eta gainbegiratzeko, laneko arriskuak prebenitzeko araudian eta animalia-ongizatearekin lotutako jardun-irizpideetan jasotako espezifikazioak identifikatzea.

A2: Umetarako behorretan araldia detektatzeko eta egiaztatzeko metodo desberdinak erabiltzea, estaltzeko une egokiena ziurtatze aldera.

EI2.1 Behorretan araldiaren seinale eta sintoma nabariak identifikatzea, horien egoera fisikoaren eta portaeraren behaketaren bitartez.

EI2.2 Behorretan araldia detektatzeko eta egiaztatzeko erabiltzen diren metodoak, materialak, ekipamenduak eta instalazioak zerrendatzea, baita horien erabilera-moduak, funtzionamendua eta mantentzea ere.

EI2.3 Behorretan araldia detektatzeko eta egiaztatzeko metodoak erabiltzea, ugalketa-zikloaren zein fasetan dauden eta estaltzeko edo intseminatzekeko une egokiena zehaztuz.

EI2.4 Araldia detektatzeko eta egiaztatzeko behorrekina egiten diren jardunen ondoriozko ezinbesteko erregistroak betetzea.

EI2.5 Behorretan araldia detektatzeko eta egiaztatzeko prozesuetarako, laneko arriskuak prebenitzeko araudian eta animalia-ongizatearekin lotutako jardun-irizpideetan jasotako espezifikazioak identifikatzea.

A3: Intseminazio artifizialaren bidezko estalketetan erabiliko diren semen-dosien erauzketarako, prestaketarako, kontserbaziorako eta garraiorako metodo desberdinak erabiltzea.

EI3.1 Semen-dosien erauzketarako, prestaketarako, kontserbaziorako eta garraiorako erabiltzen diren metodoak, materialak, ekipamenduak eta instalazioak zerrendatzea, baita horien erabilera-moduak, funtzionamendua eta mantentzea ere.

EI3.2 Hazitarako ar mota bakoitzarentzako teknika egokiak aplikatzea, semen-dosiak prestatzeko kalitate onargarria duen semena jasotzen dela ziurtatuz.

EI3.3 Jasotako semen freskoaren tratamendu- eta manipulazio-baliabide egokiak erabiltzea, intseminazio artifizialaren bidezko estalketetan erabiliko diren semen-dosiak fidagarritasun- eta segurtasun-baldintza egokietan jaso, kontserbatuz eta garraiatuz.

EI3.4 Semen-dosiak lortzeko eta kontserbatzeko, hazitarakoekin egiten diren jardunen ondoriozko ezinbesteko erregistroak betetzea.

EI3.5 Semen-dosien erauzketarako, prestaketarako, kontserbaziorako eta garraiorako, laneko arriskuak prebenitzeko araudian eta animalia-ongizatearekin lotutako jardun-irizpideetan jasotako espezifikazioak identifikatzea.

A4: Araldia egiaztatzen zaien behorren estalketarako metodo desberdinak erabiltzea (estaltze naturala edo intseminazio artifiziala), behor haurdunen kopuruan emaitza onak lortze aldera.

- EI4.1 Behorren estalketarako erabiltzen diren metodoak, materialak, ekipamenduak eta instalazioak zerrendatzea (estaltze naturala edo intseminazio artifiziala), baita horien erabilera-moduak, funtzionamendua eta mantentzea ere.
- EI4.2 Behorren estaltze-prozesuan (estaltze naturala edo intseminazio artifiziala) egin beharreko jardunen plangintza egitea, horien eraginkortasun handiena lortzeko ezinbesteko neurriak eta arretak xedatuz.
- EI4.3 Estaltze natural bidezko behor baten estalketa gidatzea eta/edo egitea, eraginkortasunez eta segurtasun-baldintzetan gauzatzeko behar diren materialak, ekipamenduak, instalazioak eta langileak erabiliz.
- EI4.5 Intseminazio artifizial bidezko behor baten estalketa egitea, erabili beharreko semen-dosia aldezturik prestatuta, eta eraginkortasunez eta segurtasun-baldintzetan gauzatzeko ezinbesteko materialak, ekipamenduak eta instalazioak erabiliz.
- EI4.6 Estalketetan (estaltze naturala edo intseminazio artifiziala) behorrek egiten diren jardunen ondoriozko ezinbesteko erregistroak betetzea.
- EI4.7 Behorren estaltze-prozesuetarako (estaltze naturala edo intseminazio artifiziala), laneko arriskuak prebenitzeko araudian eta animalia-ongizatearekin lotutako jardun-irizpideetan jasotako espezifikazioak identifikatzea.
- A5: Sabelaldian zehar umetarako behorrek egiten diren jardunak gainbegiratzea, jaiotza kopurua handiagotze aldera.
- EI5.1 Behorren ernaldiaren diagnostikoa edo sabelaldiaren egiaztapena egiteko erabiltzen diren metodoak, materialak, ekipamenduak eta instalazioak zerrendatzea, baita horien erabilera-moduak, funtzionamendua eta mantentzea ere.
- EI5.2 Aldez aurretik estalitako behor baten ernaldiaren diagnostikoa edo sabelaldiaren egiaztapena egitea, eraginkortasunez eta segurtasun-baldintzetan gauzatzeko beharrezko materialak, ekipamenduak eta instalazioak erabiliz.
- EI5.3 Umedun dagoen behorrek izan ditzakeen portaera-alterazio eta aldaketa fisiko ohikoenak interpretatzea, behorren sabelaldi-fasearentzat normalak ote diren balioetsiz.
- EI5.4 Umedun dagoen behorrek egin beharreko maneiu-jardunak zehaztea, abortuak eta konplikazioak saihesteko sabelaldian zehar.
- EI5.5 Behorretan abortua adierazten duten seinaleak atzematea, kasu bakoitzean protokoloaren arabera jardunez.
- EI5.6 Behorrek erditzean jasoko dituzten zainketa espezifikak zehaztea, kontrol- eta zaintza-jardun eta -metodo egokiak ahalbidetuz.
- EI5.7 Sabelaldian zehar behorrek maneiatzeko eta behatzeko, nekazaritzako eta abeltzaintzako industriaren sektorerako ingurumen-jardunbide egokien eskuliburuan, laneko arriskuak prebenitzeko araudian eta animalia-ongizatearekin lotutako jardun-irizpideetan jasotako espezifikazioak identifikatzea.
- A6: Erditzean behorrei arreta emateko beharrezko ekintzak ebaluatzea eta ezinbesteko baliabideak ahalbidetzea, erditzea normaltasunez garatzen dela ziurtatzeko.
- EI6.1 Behorren erditzea garatuko den guneen egokitzapen zuzenerako ezinbesteko jardunak planifikatzea, horien arreta on baterako beharrezko baliabideak ahalbidetuz.
- EI6.2 Maneiu- eta higie-ne-protokolo bat lantzea behorren erditzean laguntzeko, amarengan eta bere moxalarengan kalteak eta infekzioak saihestearren.
- EI6.3 Erditzearen sintoma nabariak atzematea behorretan, erditzea gertatuko den unea gutxi gorabehera balioetsiz.
- EI6.4 Behorren erditzearen fase desberdinak identifikatzea, horren garapenean izan daitezkeen anomaliak ohartuz.
- EI6.5 Erditzean eta ondoko uneetan behorren zainketa edo ezohiko garapen baten kasurako jardun-protokoloa ere.
- EI6.6 Erditzean behorrei laguntzeko, nekazaritzako eta abeltzaintzako industriaren sektorerako ingurumen-jardunbide egokien eskuliburuan, laneko arriskuak prebenitzeko araudian eta animalia-ongizatearekin lotutako jardun-irizpideetan jasotako espezifikazioak identifikatzea.
- A7: Esnealdian behor amekin eta beren moxalekin egin beharreko jardunak kontrolatzea, horien ongizatea bermatzearen.
- EI7.1 Esnealdian behorrei eta moxalei aplikatu beharreko zainketak azaltzea.
- EI7.2 Adinaren arabera garapen-egoera onean dagoen errapeko moxal baten ezaugarriak zerrendatzea.
- EI7.3 Moxalaren aldetik edoskitze on bat lortzeko jarraitu beharreko jarraibideak adieraztea.
- EI7.4 Moxalari edoskitze on bat ematea oztoka dezaketean eragozpenak deskribatzea eta izan daitezkeen konponbideak adieraztea.
- EI7.5 Esnealdian zehar behorretan eta beren moxalekin gerta daitezkeen ezohiko portaera-aldaketak identifikatzea.
- EI7.6 Errapeko moxalak eta beren amak, ustiatzearen barruko maneiuari eta egoera fisiologikoari dagokionez parekoen animalia-talde baten barruan sartzeko erabiltzen diren metodoak azaltzea.
- EI7.7 Errapeko moxalak eta beren amak taldean ez integratzea edo gaizki egitea eragin dezaketean arrazoiak identifikatzea.
- EI7.8 Moxalen esnealdirako, nekazaritzako eta abeltzaintzako industriaren sektorerako ingurumen-jardunbide egokien eskuliburuan, laneko arriskuak prebenitzeko araudian eta animalia-ongizatearekin lotutako jardun-irizpideetan jasotako espezifikazioak identifikatzea.
- A8: Errapeko moxalaren jokabidea gainbegiratzea, eta zaintzaileen hurbilketa-lanak une, modu eta leku egokietan egiten direla egiaztatzea.
- EI8.1 Errapeko moxalen jokabide-eredu normalak zerrendatzea.
- EI8.2 Jardun-neurri espezifikak aholkatzen dituzten errapeko moxalen jokabide normalaren alterazioak edo aldaketak identifikatzea.
- EI8.3 Zaintzaileak errapeko moxalari hurbiltzeko teknikak eta metodoak azaltzea.
- EI8.4 Zaintzaileek errapeko moxalei hurbiltzeko erabiltzen dituzten ekipamenduen, instalazioen, erreminten eta lanabesen egokitasuna balioestea eta identifikatzea.
- EI8.5 Zaintzaileak errapeko moxalarengana hurbiltzearekin lotutako jardueretarako, nekazaritzako eta abeltzaintzako industriaren sektorerako ingurumen-jardunbide egokien eskuliburuan, laneko arriskuak prebenitzeko araudian eta animalia-ongizatearekin lotutako jardun-irizpideetan jasotako espezifikazioak identifikatzea.

Edukiak

1. Zaldien ugalketa-aparatuaren anatomia eta fisiologia.

- Hazitarakoaren ugalketa-aparatuaren fisiologia: ezaugarri morfologikoak eta funtzionamendua.
- Behorren ugalketa-aparatuaren fisiologia: ezaugarri morfologikoak eta funtzionamendua.
- Hazitarakoaren ugalketa-zikloa: pubertaroa, ugalkortasuna, hazitarakoaren antzutasunaren arrazoiak.
- Behorren ugalketa-zikloa: pubertaroa, ugalkortasuna, obulutegi-zikloaren iraupena eta ezaugarriak, obulazioaren nahasmendu funtzionalak, behorren antzutasunaren arrazoiak.

2. Zaldi-aziendaren ugalketa.

- Estalketen plana: diseinua eta plangintza.
- Behorretan araldia detektatzeko metodoak: erabilitako teknikak, materialak, ekipamenduak eta instalazioak.
- Estaltze naturala: erabilitako teknikak, materialak, ekipamenduak eta instalazioak. Intseminazio artifizialaren abantailak eta eragozpenak.
- Intseminazio artifiziala: semena erauzteko, eta semen-dosien manipulaziorako, prestaketarako, kontserbaziorako eta garraiorako erabiltzen diren teknikak, materialak, ekipamenduak eta instalazioak. Semen freskoarekin eta izoztuarekin intseminatzeko erabiltzen diren teknikak, materialak, ekipamenduak eta instalazioak. Estaltze naturalaren abantailak eta eragozpenak.
- Sabelaldia behorren kasuan: sabelaldiaren diagnostikorako erabiltzen diren teknikak, materialak, ekipamenduak eta instalazioak. Behorren zainketa, jarraipena eta faseak sabelaldian zehar.

3. Behorren erditzea.

- Behorren erditzearen seinale eta sintoma nabariak.
- Behorren erditzearen garapena: erditzearen etapak.
- Behorren erditzean laguntzeko ezinbesteko guneak, materialak eta ekipamenduak.
- Jardun-protokoloa erditze normaletan eta erditze distozikoetan.
- Jaioberrien zainketa espezifikokoak.
- Puerperioa.
- Abortuak: seinale eta sintoma nabariak. Jarduera-protokoloak.

4. Zaldi-aziendaren edoskitze naturala.

- Behorren errapea: morfologia, fisiologia, gaixotasunak eta zainketak.
- Behorren esnearen ezaugarri nagusiak.
- Edoskitze naturala: oritza hartzearen garrantzia, etapak eta iraupena.

5. Taldean integratzeko lanak eta zaintzaileak errapeko moxalei hurbiltzeko lanak.

- Errapeko moxalen integrazioa taldeko elkarbizitzan: integrazio-metodoak eta egokitzapen-arazoentzako konponbideak.
- Errapeko moxalei hurbiltzeko teknikak eta metodoak.
- Errapeko moxalei hurbiltzeko lanetarako behar diren ekipamenduak eta instalazioak: ezaugarriak eta erabilera-moduak.

6. Zaldi-aziendaren ugalketa-prozesuaren plangintzan, kontrolean eta garapenean aplikatutako informatika.

- Material informatikoaren maneia.
- Jarduerarekin lotutako programa informatikoen ezagutza eta maneia.

7. Zaldi-aziendaren ugalketa-prozesuaren plangintzarekin, kontrolarekin eta garapenarekin lotutako araudi erregulatuak.

- Ingurumen-babesa
- Lan-arriskuen prebentzioa
- Animalien ongizatea.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Zaldi-hazkuntza

